

TUTORETZA OSAGARRIA

Jakina denez, 2021eko apirilean 2017-2021erako EAEko Gizarte Ekimeneko ikastetxeetako lan hitzarmena argitaratu zen.

Hitzarmen horretan, 65. artikulua tutoretza osagarriaren aitortzea jasotzen du Haur Hezkuntzako lehen zikloko langileentzat eta Lanbide Heziketako langileentzat, hitzarmen zaharrak aitortzen ez zuena, funtzio horiek betetzen ari ginen langileak diskriminatu.

Hala ere, akordioa sinatu duten patronalek, sinatutakoa ez betetzera oso ohituta daudenak, ez dute eskubide hori onartu nahi 2017tik atzerapenak ordaintzeari uko eginez. Gainera, salaketa bat jarri dute epaitegian, negoziazio mahaian adostu eta sinatu zutena ez betetzeko.

Egoera hori ikusita, eta dagokien langile askori osagarri hori ordaintzen ez zaigula jakinik, LAB sindikatuak gatazka kolektiboa jarriko du tutoretza-plusa dagokien langile guztiok kobratu dezagun eta eskubide hori 2017tik lan egin duten langile guztiei aitortzeko.

LAB sindikatuak gatazka kolektiboaren hautua egin du, langile guztiak hartzen dituelako barnean bide honek, eta horrela ez da beharrezkoa izango banakako demandarik egitea modu kolektiboan erantzungo baitiogu sektoreko arazo honi.

LAB Sindikatuak, lan hitzarmenaren sinatzailea ez izan arren, langile guztion eskubide kolektiboen defentsan arduraz jarduten du, eta oraingoan ere horrela jardungo du, bestelako etekinik ateratzeko inongo asmorik gabe.

Honen inguruko informazio gehiago nahi izanez gero, jarri harremanetan gurekin hurrengo telefonoetan: 666 77 80 35 Araba eta Bizkaia. 674 09 44 66 Gipuzkoa

ANIMO ETA AURRERA!